

**SECCIÓN AMENA****BESTERENTZAT ERREZ**

On Lorentzok birritan atzo limosnea  
 Agindu eustan eta gaur jorik atea,  
 ¿Lagun, zer derichazu ak egin deustala?  
 Neskachea agindu eskalleretara,  
 Ta arek laster bota nau *Jaungoikoa lagun*  
 Esanda berba orreik otz motz eta illun.

—Esaidazu garbiro Juan, bene benetan,  
 Laguntzen deustazuna iñoz premiñetan  
 ¿Orri esaten jako berdea jatea?

—Bai, baña obeto da esan edatea,  
 Ez dalako memin da azurdun gauzea;  
 Alanbere naiz dala bata zeiñ bestea,  
 Ez dau Jose merezi damurik artzea;  
 Baldin agintzen bada gauza bat birritan  
 Beiñ emotea aiña ori oi da izan.

—¿Baña orrelan dala ziurra da ori?  
 —Askok diñoelean Chomin, badirudi.  
 —Orduan pesetarik ez eskatu niri  
 Pagauko deutsudala esan deutsut zuri  
 Ez birritan bakarrik baita geyagotan  
 Onezkero zagotaz zeu niri zorretan.

*Kontsejua emoten barrez arpegia  
 Juanch eukan ta artzen illun bekokia  
 Askotan izaten da emoten erreza  
 Norberentzat danean irunsten nekeza.*

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

